



Getxo
bizi ezazu

Getxo

**Kirolaren
Europako
Hiria izateko
hautagaia**

2014

**Getxo
Kirolaren
Europako
Hiria
izateko
hautagaia
2014**

Aurki bidea

Informazio
orokorra **06**

1. Kirola hirian **08**

2. Jarduera
fisiko-
kirolekoen
eskaintzaren
aniztasuna
14

3. Azpiegiturak **20**

4. Kirol
gertaerak **24**

5. Lankidetzak, kirol
zientzietan
lotutako
erakundeak **28**

6. Profila eta
jarduera
posibleak
Kirolaren
Europako
Hiri moduan
30

Informazio orokorra

HIRIA

1. *eranskina*. Getxoko informazio turistikoa. Getxo (Bizkaia, Euskal Herria). Labarrak, kostaldea eta hondartzak ditu inguruan, paisaia erakargarriak eta irekiak eta miresteko moduko arkitektura. Hori guztia dela eta, Getxok turismo, kultura, aisia eta kirol eskaintza zabalaz goatzera gonbidatzen zaitu.

Aireportutik, Nazioarteko Erakusketa Azokatik eta Guggenheim Museotik minutu gutxira dago, eta beraz, Getxo kalitatezko jomuga da, gure ingurua eta ingurumena zaintzeaz eta bizi-kalitatea hobetzeaz arduratzen den udalerria.

HIRIAREN ORDEZKARIA

Imanol Landa Jauregi (Alkatea).
Foru kalea, 1. 48992, Getxo (Bizkaia)

ZEIN ARLO ARDURATZEN DA HIRIAN

KIROLA SUSTATZEAZ?

Getxoko kirolaz eta jarduera fisikoaz Getxo Kirolak arduratzen da, Udalaren mendeko udal erakunde autonomoa. Getxo Kirolak hemen kokatuta dago: Makaleta etorbidea z/g, 48992 Algorta-Getxo, Bizkaia.
www.getxokirolak.getxo.net

ARLOKO ZUZENDARIA

Álvaro González Pérez, Kirol zinegotzia
eta Getxo Kirolakeko presidentea.


HARREMANETARAKO PERTSONA ESKAERAREKIN LOTUTAKO GAIETARAKO

Asier Arévalo Billelabeitia.
Makaleta etorbidea z/g, 48992 Getxo.
aarevalo@getxo.net

BIZTANLERIA

Gaur egun, Getxon 84.000 pertsona bizi dira, eta biztanleria piramidea honela banatuta dago.

BIZTANLERIA PIRAMIDEA



1. Kirola hirian

ZENBAT PERTSONAK (%) PARTE HARTZEN DU KIROL JARDUERETAN ZURE HIRIAN?

2. *eranskina*. Inkesta Getxoko herritarrei egindako azken inkestako kalkuluen arabera, herritarrei kirol praktikari buruz, herritarren %77k jarduera fisikoren bat egiten du. Zifra hori honela banatzen da:

- %26k egunero
- %38k astean 2-3 aldiz
- %13k astean behin
- Herritarren %15ek ez du kirol egiten
- Herritarren herena (%32) Getxo Kirolak abonatuta dago, eta horri esker, herriko 3 kiroldegietan sar daitezke.

3. *eranskina*. 2010, 2011 eta 2012ko jarduera memoriak. Argitalpen horien "kudeaketa plana" atalean, udalerriko kirol kudeaketako planak zehatz kontsultatu daitezke.

ZENBAT PERTSONA (%) DIRA KIROL KLUBETAKO ETA ELKARTEETAKO KIDE?

Eskura ditugun datuen arabera, Getxoko kirol elkarteetan 800 kirolari daude, hau da, biztanleria osoaren %8,1.

NOLA BABESTEN DU HIRIAK KIROL ESPARRUKO BOLUNTARIOTZA?

Gertaerak antolatzen dituzten klub guztiek boluntariotza sare handia dute. Garrantzi handiko gertaeren kasuan, boluntariotza zenbait klubetako kideek osatzen dute, eta horiek, gertaeretan, boluntarioekin batera aritzen dira.

Getxoko Lanbide Heziketako (LH) Zentroak praktiketarako Getxo Kirolakekin duen lankidetzaren hitzarmenaren barruan, lankidetzaren akordioa du zenbait gertaeretan boluntarioak emanez (eskolako jokoak, nazioarteko triatloia, etab.).

Boluntarioen sare horretan Getxoko 17 elkarte biltzen dira. Iaz jardunaldi batzuk antolatu zituzten, eta horiei buruzko informazioa hemen dago eskuragarri: www.sarekidegetxo.org

BADAGO PLANIFIKAZIOARIK UDAL KIROLA GARATZEKO? ZEIN DIRA PLANGINTZA HORREN HELBURUAK?

Getxoko Udalaren xedea herritarrei zerbitzua eskaintzea, haien beharrezan modu egokian erantzutea eta herritarrak pertsona moduan osorik garatzeko baldintzak sortzea da.

Getxo Kirolak Getxoko Udalaren mendeko tokiko erakunde autonomoa da. Gure eginkizuna da Getxoko herritarrei kirol, aisia eta osasun jarduerak praktikatzeko erraztasunak ematea; modu berean, Udaleko kirol instalazioak (Fadura, Gobela eta Andra Mari) eta udalerriko klubak, kultura erakundeak, hezkuntza eta lan erakundeak kirol beharrezan erantzuten diegu.

Udalak arreta berezia eskaintzen die beharrezan handiena duten kolektiboak; hori dela eta, lehentasuna ematen die haurrei, gazteei, adinekoak eta udalerritarren garapenean laguntzen duten gizarte eragileei bideratutako politikari. Ahalegina egiten dugu kirola eta aisia eta osasun jarduerak errealitatea izan daitezen udalerriko pertsona guztientzat, haien bizi kalitatea hobetze aldera.

Udalbatzak udalerriri bizi eta dinamikoa eraiki nahi du; Euskadin eta bertako kulturaren errotua; eta garapen jasangarriarekin konpromisoa duena. Horrez gain, erakundearen kulturaren barruan sartu nahi du barne partaidetzan lan egitea, eta lan giro ona lortu nahi du.

Azken finean,

kalitatezko erreferente bihurtu nahi du kudeaketan eta herritarren gogobetetzean.

Pertsonen inplikazioa eta talde lana ditugu oinarri eredu bihurtzeko ez bakarrik kirol instalazioei eta azpiegiturei dagokienez, baita kirol kudeaketaren kalitateari dagokionez ere. Horretarako, erabiltzaileen, langileen eta kanpoko eta inguruko lankidetzen gogobetetzea bilatzen dugu.

Udal gobernua balio hauek azpimarratzen ditu: gardentasuna eta zintzotasuna, hurbiltasuna, partaidetza, elkartasuna, akordioak bilatzea, sormena, berrikuntza eta eraginkortasuna. Horiez gain, hauek dira Getxo Kirolaren lanean oinarri izango ditugun printzipioak eta balioak: komunikazioa, errespetua, konfiantza, motibazioa, lidergoa, talde lana, partaidetza, prestakuntza, gaitasun autokritikoa, malgutasuna, entzutea, etengabe hobetzea, emaitzetara eta herritarrengana orientatuta egotea.

Erronkei aurre egiteko, lehen mailako helburu estrategikoak definitu ziren, eta lan hori errazteko, analisisian 6 lan ildo zehaztu dira, funtsean: antolaketa, interes taldeak, eskaintzen ditugun zerbitzuak, baliabideak, komunikazioa eta teknologia.

Getxo Kirolakek, legegintzaldi bakoitzean, plan estrategiko bat egiten du, eta horretan, identifikatutako erronkak kontuan hartuta, helburu estrategikoak eta denboraldi bakoitzean garatu beharreko proiektuak definitzen dira.

Getxo Kirolaren Misioaren, Bisioaren eta Balioen eta egindako analisiaren artean dagoen distantzia kontuan hartuta, zehaztuko den Ekintza Planean ezarri beharreko erronka nagusiak definitzen dira.

Hauek dira 2011-2015 Plan Estrategikoan planifikatutako helburuak:

1. ildoak: Barne antolaketa

Lan-ildo argi eta ondo komunikatuak izatea erabakiak hartzea hobetzeko, erabakiak adostuak izateko eta horiek garaiz hartzeko. Erreferentzia moduan, BIKAINASUN eredu hartuko da.

2. ildoak: Interes taldeak

Talde guztien beharrezko erantzutea, kide izatearen eta harrotasunaren sentipena izateko.

3. ildoak: Kirol, osasun eta aisia zerbitzuak

Getxo Kirolaren kirol eskaintza zabaldu eta deszentralizatzea, agerian jartzeko eta pertsona gehiagorengana iristeko.

4. ildoak: Baliabideak

Jarduera garatzeko beharrezko baliabideak izatea. Horretarako, espazio fisikoak jardueretara egokitu dira, modu irisgarri, jasagarri eta erosoan. Modu berean, autofinantzaketaren ehunekoa handitzea.

5. ildoak: Komunikazioa

Getxo Kirolaren irudi korporatiboari bultzada berria ematea eta barruko zein kanpoko komunikazio sistemak hobetzea.

6. ildoak: Teknologia

Administrazio kudeaketa digitalizatu eta modernizatzea, prozedura errepikakorak, ia beti administratiboak, egiten erabiltzen dugun denbora minimizatzeke, ez baitute balio erantsirik ematen.

Lan-ildo bakoitza ekintza plan espezifiko batean zehazten da, eta hori Urteko Kudeaketa Planean jasotzen da eta aginte-mahai integraleko adierazle bidez ebaluatzen da.

Planak zein adierazleak zehaztasun osoz kontsultatu daitezke urteko jardura memorien "kudeaketa plana" ataletan. [3. eranskina.](#)

ZER EGINKIZUN DU KIROLAK HIRIAN GONBIDAPEN GUTUNEAN AZALDUTAKO ACES- EKO BOST HELBURUAK LORTZEKO?

Historian, kirola Getxon osagai bereizlea izan da, eta batez ere, kirol federatuetan hartu izan da parte. Estatuan modalitate batzuk aipatzeko modukoak dira, hala nola arrauna, errugbia, hockeya eta surfa.

Behin fase hori gaindituta eta kirolak osagai integratzaile moduan eta osasuna hobetzeko oinarritzko erreminta moduan duen garrantzia onartuta, Getxok, tokiko administrazio moduan, Kirol Arloaren bidez – Getxo Kirolak– lan egiten du praktika hori biztanleen piramideko adin tarte guztietan gizarteratzeko.

Gaur egun, Getxo Kirolakek jarrera sedentarioari aurre egin nahi dio. Modu horretan, 2020an, herritarrek jardura fisikoaren inguruko oinarritzko gomendioak ezagutu eta egitea nahi du. Horren bidez lortu nahi dugu Getxoko herritarren %75ek gutxienez jarrera aktiboa izatea, eta lanean ari gara epe luzean jardura fisikoa praktikatzeari lotutako beste onura batzuk lor daitezken (osasuna hobetzea, ingurumen-hobekuntzak, osasun gastuaren aurrezkia handitzea, enpleguak gora egitea aisia, osasun eta kirol sektorean, etab.).

Zehatz esanda:

- Jarduera fisiko osasuntsua bultzatzen dugu herritar guztien eta adin guztien artean.
- Emakumeen, baliabide gutxi eta baztertzeko arriskua duten pertsonen, immigranteen eta aniztasun funtzionalaren errealitatea zehatz lantzen dugu.
 - Aire zabaleko jarduera fisikoa bultzatzen dugu jolas izaerarekin, egoera fisiko orokorra hobetzera bideratuta.
- Joan-etorrietarako bizikleta erabiltzea bultzatzen dugu.

Erronka horiei guztiei aurre egiteko, nahitaez eragile guztiak tartean sartu behar dira, efektu biderkatzailea duten sinergiak sortzeko.

Gaur egun gure gain hartzen ditugun erronka horiek ACESeko bost helburuekin argi eta garbi lotzen gaituzte, hots: ariketaz gozatzea, lorpen konpromisoa, erkidego sentipena, joko garbia praktikatzea eta osasuna hobetzea.

Kirolaren bidez integratzeari dagokionez, immigranteen zenbait kolektibo daude, hala nola Adrebol eta Sikap.

Lehen kolektiboa –Asociación de Deportistas Bolivianos Residentes– oso errotuta dago udalerriko kultura eta gizarte bizitzan, egoiliarren kopurua esanguratsua baita. 2007-11n Getxoko Udalarekin lan egiten duen enpresa baten (Gure Aisia) kanpoko laguntza jaso zuten kirol elkarteak eratzen laguntzeko, lehiaketak, gertaerak eta diru-laguntza eskaerak izapidetzen eta antolatzen laguntzeko. Orduetik aurrera, Adrebolek gainerako klubak moduan lan egiten du, urtero emakumezkoen 3 txapelketa eta gizonezkoen beste 3 antolatzen ditu; horrez gain, futbol talde federatua du eta Bizkaiko ligan lehiatzen da.

Sikap kolektiboak Filipinetako herritarrak biltzen ditu. Erkidego hau ere oso aktiboa da Getxon, eta Gizarte Zerbitzuen Arloaren laguntza izan zuen. Gaur egun areto-futboleko eta saskibaloiko txapelketa ugari antolatzen ditu gure instalazioetan, laugarren urtez jarraian. Independentzia Eguna ere udalerriko kirol instalazioetan ospatzen dute.

2. Jarduera fisiko-kirolekoen eskaintzar en aniztasuna

BADAGO ESKAINTZA ESPEZIALIZATURIK ADIN TALDE ZEHATZETARAKO?

4. eranskina. *Kirol ikastaroen katalogoa* Getxo Kirolakek adin tarteen arabera antolatutako eskaintza berezitu eta askotarikoa egiten du, Faturako kiroldegian eta Gobelakoan. Eskaera desberdina denez, denboraldiko ikastaroen eta udako ikastaroen artean bereizten dugu.

3. eranskina. *“Kirol campus izeneko Programa Jarduera* Gainera, kirol elkarte eta klubek haien urteko jarduerak alde batera utzita, (kirol eskolak eta lehiaketa), *Memorien “Kirol memoria”* aisia eta jarduera fisikoaren eskaintza egiten dute oporraldietan, Getxo Kirolak eskaintza osatzeko. *atalean ikus daiteke* Modu horretan, familiek lan bizi eta udako oporrak uztartu ditzakete, kirolari esker.

Ikastetxeekin batera, Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako programa definitzen da. Horretarako, eskaintza zabala definitzen da. Helburua da oinarritzko trebetasun eta abilezia motorrak garatzea. Horrekin batera, udalerriko kirol eskaintza guztiaren berri ematen zaie. Eskaintza horri Multikirolak esaten zaio eta 2008an eskola kirola sustatzeari emandako saria jaso zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik.

5. eranskina. *Eskola kirolaren jarduerak (Multikirolak).*

Era berean, Getxo Kirolakek eskola igeriketaren programa antolatzen du. Urtero, udalerriko 13 ikastetxeetako mila hurrek baino gehiagok igeriketa hastapenak egiten dituzte. Eskaintza Lehen Hezkuntzako 2, 3 eta 4. mailetara zuzenduta dago.

Gainera, ikastetxeek eurek eskola kirolaren eskaintza zabala definitzen dute, eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera koordinatzen dugu. (Ikusi www.bizkaia.net).

Lan esparruan eskaintza erakargarria garatu ahal izateko lanean ari gara. Ildo horretatik, denboraldi honetan, Udaleko langileentzat “jarrera higienerari” buruzko monografikoa garatu dugu. Modu berean, udalerrian kokatutako enpresa batzuk animatzen ditugu gure kirol instalazioetan enpresen arteko txapelketak antolatu ditzaten.

Horrez gain, beste eskaintza bat dago, emakumeen elkarteek eta kultura eta gizarte izaerako kolektiboek sustatutakoa eta kirol klub pribatuek eskainitakoa. Horiekin esperientziak trukatu eta lankidetzak-akordioak eta espazioa erabiltzeko akordioak egiten ditugu.

Emakumeen elkarteetatik eta/edo kolektibo desberdinetatik sustatutako eskaintzari dagokionez, aipatzekoa da azken urteetan autodefentsa ikastaroak, emakumeen eta kirolari buruzko hitzaldien zikloak antolatzen direla, Faturako kiroldegiko haurrentzako aisia zentroarekin lankidetzan. Modu horretan, emakumeek seme-alabak bertan utzi eta udal eskaintzako kirol ikastaroetara joan daitezke.

6. eranskina. *Emakumeen eta gizonen egoeraren diagnostikoa eta jarduera ildoak Getxoko kirol esparruan.*

Urtero, hogeit hamar elkartek eta gizarte kolektibok tailerrak eta hitzaldien zikloak antolatzen dituzte kirolari, emakumei eta integrazioari buruz.

Horrez gain, kirolari eta emakumei lotutako diagnostiko espezifikoa daukagu; plan estrategikora bildutako erreminta metodologikoa da.

Oharra:

Getxoko web orriaren linka gehitu dugu kirol eskaintza ikusi ahal izateko. Kirol eskaintza nondik datorren bereizi dugu: ikastaro zuzenduak, eskola kirola, kirol federatua, etab.
<http://www.getxo.net/es/getxo-kirolak/cursos/cursos-getxo-kirolak>

NORK GARATZEN DITU PROGRAMA HORIEK?

Deskribatutako programak udalerrian kirolaren kudeaketan eta sustapenean parte hartzen duten eragileek garatzen dituzte:

- Getxo Kirolak. Urte osoko eta udako kirol ikastaroen eskaintza egiten du. Baita eskola kirolaren eskaintza (Multikirolak) eta eskola igeriketa ere.
- Kirol elkarteak eta klubak. Kirol eskolez eta kirol federatuaren jardueraz gain, Getxo Kirolakekin koordinatuta, klubek kirol campusen eskaintza egiten dute uda sasoiari.
- Getxoko kirol federatua 60 klubek baino gehiagok ordezkatzeko dute, eta horietan, kategoria desberdinetako 200 talde baino gehiago sartzen dira. Tokiko elkarte ehun garrantzitsu eta aktiboa da eta Getxo Kirolakek horrekin batera lan egiten du udalerrian kirol praktika sustatu eta dinamizatzeko. 2012an, gure kiroldegietan 2.000 lehiaketa baino gehiago egin ziren eta horietan 45.000 pertsona inguruk parte hartu zuten. Horrez gain, kirol klubak eta elkarteak Getxo Kirolakekin eta Udaleko gainerako arloekin lankidetzan aritzen dira interes orokorreko ekimenak bultzatzerakoan: berdintasun politikak, euskara sustatzea campusak antolatzea, eskola kirola babestea, etab.
- Klubuen zerrenda web orri honetan kontsultatu daiteke: <http://www.getxo.net/es/getxo-kirolak/deporte-federado/listado-de-clubes>
- Ikastetxeak. Eskola-kirolaren eskaintza gurasoen elkarrekin bidez egiten dute.

PROGRAMA HORIETARAKO KALITATE-IRIZPIDEAK EZARRI DIRA?

Kudeaketa-sistemak ISO 2010 kalitate sistemaren ziurtagiria du, eta kirol jardueraren ildo bakoitzerako prozedura bat dago; horretan, hauek deskribatzen dira: lan-prozesua, misioa, arduraduna, interes-talde bakoitzaren beharrezkoak, igurikimenak eta betekizunak, nola bete edo ebaluatzen dugun, lotutako erregistroak eta dokumentuak, kanpoko dokumentazioa eta prozesuaren ebaluazioa, hobekuntza eta ikaskuntza adierazleak. Kirol izaerako kudeaketari dagokionez, urtero adierazle hauek ebaluatzen ditugu:

Kirol parte-hartzailea

- Okupazioa plaza guztiak kontuan hartuta.
- Okupazioa plaza guztiak kontuan hartuta zentroen arabera.
 - %65etik beherako okupazioa duten ikastaroak.
 - %65etik beherako okupazioa duten ikastaroak zentroen arabera.
 - %80tik gorako okupazioa duten ikastaroak.
- %80tik gorako okupazioa duten ikastaroak ikastaroen arabera.
 - Emakumeen eta gizonen ehunekoa
 - Ikastaro berriak

- Outdoor ikastaro berriak
- Neguko ikastaroen gogobetetze indizea
- Udako ikastaroen gogobetetze indizea

Kirol federatua

- Diru-laguntza jasotzen duten klubetako ehunekoa.
 - Diru-laguntza ukatzen zaien klubetako ehunekoa.
 - Hitzarmena duen klubetako kopurua.
 - Kiroldegien okupazio indizea.
 - Gogobetetze indizea.

Eskola kirola

- Parte-hartzaileen kopurua eta sexuen arabera banaketa.
 - Gogobetetze indizea.
 - Bileren kopurua ikastetxeekin.
 - Bileren kopurua gurasoen elkarrekin.
- Bileren kopurua udalerriko kirol eskolekin.

Gertaerak

- Planifikatutako gertaeren betetze maila.
 - Gertaera kopuru osoa urtean.
 - Partaidetza indizea gertaeretan.
 - Gogobetetze indizea.

Adierazle horien bilakaera entitatearen agintekoadro integrarekin ikus daiteke.

BADAGO PRESTAKUNTZA-ESKANTZARIK, ESATERAKO KIROL TEKNIKARIENTZAT?

Getxon egoitza duen "Kirolaren Euskal Eskolarekin" lankidetzan, beharrezko ikusten denean, sektoreko eta erakundeko profesionalen eta teknikarien etengabeko prestakuntzaren eskaintza definitzen da. Ikastaro horiek Faturako Hobekuntza Teknikorako Zentroan egiten dira. Programazioa Kirolaren Euskal Eskolaren atalean kontsultatu daiteke: www6.euskadi.net.

ZEIN PROFIL TEKNIKO-PROFESIONAL DUTE HIRIAN KIROL PROIEKTUAK PLANIFIKATU, ZUZENDU ETA GAUZATZEN DITUZTEN ESPEZIALISTEK?

Kirol teknikarien taldearen buru bi koordinatzaile dira, eta profil espezializatuak dituzte. Bata jarduera fisikoaren, kirolaren eta osasunaren zientzietan lizentziatuta dago (eta kirol kudeaketari buruzko masterra du); eta bestea psikopedagogiako lizentziatuta da eta kirol kudeaketari buruzko masterra du.

Horrez gain, zuzendaritzan hauek ere badaude: kirol kudeaketako eta enpresa kudeaketako espezialista bat, administrazio publikoan eta kirol kudeaketan espezializatutako abokatua, eta kazetari bat (komunikazio doktoregoa eta masterra).

Kirol proiektuak gauzatzeko, teknikari prestakuntza duten 13 profesionalen taldea dago, eta profesional espezializatuekin soilik lan egiten duten enpresak azpikontratatu dira.

Gainera, talde horrekin batera 30 pertsonatik gorako plantilla dago, prozesuen mapa honen arabera antolatuta:

Interes taldeak (beharrizanak)

Prozesu estrategikoak			
Politika eta estrategia	Kalitatea eta etengabeko hobekuntza	Barruko eta kanpoko	
Pertsonen kudeaketa		Komunikazioa	
Prozesu operatiboak			
Arreta bezeroari	Ikastaroak eta jarduerak, osasuna	Eskola-kirola Kirol federatua Kirol-gertaerak	Bezeroaren gogobetetzea
Laguntza-prozesuak			
Baliabide ekonomikoak	Juridikoa	Informatika	Instalazioak eta espazioak
Erosketak eta kontratazioa			

Interes taldeak (gogobetetzea)

JARDUERA PROGRAMA HORIEK DIRUZ LAGUNTZEN DIRA?

a) Diru-laguntza Udala / Getxo Kirolak:

Getxo Kirolak Getxoko Udaletik aurrekontuaren %50 inguruko finantzaketa lortzen du urtero (urte bakoitzeko zifra zehatzak erantsitako urteko memorietan irakur daitezke) **3. eranskina.**

b) Eskola igeriketa Getxoko Udaleko Hezkuntza Arloak %100 finantzatzen du, udalerraren ustez oinarritzkoa baita Getxoko ikasle guztiek igeri egiten ikastea eta hirian eskainitako jarduera fisikoaren eta kirol zerbitzu publikoen ezagutza prozesuan parte hartzea.

c) Multikirolak eskola kirolaren programa

%100 finantzatuta dago. Programa hori garatzeko giza baliabideak eta baliabide materialak Getxo Kirolak eta udalerriko kirol klubek jartzen dituzte. Sariak jaso dituen eta gure inguruan erreferentzia den programa honi esker, Lehen Hezkuntzako ikasleek urtero 20 kirol modalitate baino gehiago ezagutzen dituzte, eta diziplina horiek irakasten dituzten kirol klubekin harremanetan jartzen dira.

d) Kiroleko diru-laguntzak

2012an, Getxo Kirolak 396.966 €-ko diru-laguntza eman zien udalerriko klubei eta kirolariei. Laguntza horien bidez, lagundu nahi zaie, batetik, kirolen elkarte ehunari ohiko jardueratik eratorritako ordainketak egiten (jardueren programazioa, lokalak alokatzea, gastu arruntak, etab.), eta bestetik, izaera indibidualako lehiaketetan parte hartzen duten

errendimendu handiko tokiko kirolariei.

Kluba edo kirolaria	Zenbatekoa
Arenas Fútbol Club	45.000€
Arraultzaldeon Fútbol Taldea	1.500€
Artaromo Fútbol Sala	4.500€
Asoc. de Armadores y Patronos	1.500€
Club Ajedrez Getxo	1.094€
Club Atletismo Getxo	14.000€
Club Baloncesto Getxo	36.000€
Club Balonmano Romo	15.000€
Club Bizkerre Fútbol	7.500€
Club Ciclista Las Arenas	500€
Club Litoral Subacuático de Pesca	1.300€
Getxo Igeriketa eta Waterpolo Taldea	11.000€
Club Tenis Fadura	7.000€
Escuela de Vela José Luis Ugarte	18.000€
Getxo Herri Kirol Taldea	4.004€
Getxo Rugby Taldea	59.510€
Getxo Surf Taldea	6.000€
Getxo Aixerrota Boleibol Kirol Taldea	20.000€
Getxoko Arriluze Arraun Kirol Taldea	20.000€
Getxoko Euskal Pilota Taldea	24.000€
Itxas Gane Mendi Taldea	1.000€
Club de Pádel Aixerrota	5.000€
Punta Galea Txirindulari Elkartea	50.000€
Raspas Arraun Taldea	13.440€
Uribe Costa de Discapacitados/s	1.200€
Club de Pádel Gobela	1.000€
Real Club Jolaseta	4.000€
Club Gimnástico Femenino Getxo	2.000€
Getxoko Kaiak	4.500€
Itxartu Kirolak	5.000€
Adrebol	1.500€
Club Playas de Getxo de Tenis	500€
Garazi Sánchez	3.200€
Jonatan Larrañaga	1.729€
Jaime Bergareche	1.349€
Jonay Salas	1.295€
Pablo Zabala Arana	1.200€
Yahaira Agirre	691€
Cristina Gutiérrez	609€
Guillermo Olaso	345€
Guztira	396.966€

Horrez gain, Getxo Kirolak beste 285.000 € eman zizkien udal esparruko kirol eskola hauei: C.D Getxo, Romo Fútbol Club, Club Balonmano Romo, Getxoko Euskal Pilota Taldea, Getxo Rugby Taldea, Club Hípico La Galea eta Getxo Arraun Taldea.

3. Azpiegiturak

ZENBAT KIROL INSTALAZIO (PABILIOIAK, ZELAIK, GIMNASIOAK, IGERILEKUAK, ETAB.) DAUDE HIRIAN (KIROL PROFESIONALERAKO, ESKOLA KIROLERAKO, AISIARAKO ETA JOLASERAKO)?

7. eranskina. Kirol instalazio publikoen gida. Instalazioak ez dira bereizten kirolariaren profilaren arabera. Kiroldegietan, pabilioietan eta bestelako

espazioetan, elkarrekin aritzen dira errendimendu handiko kirolariak, eskolako kirolariak eta aisia eta jolas kirola.

Hauek ditugu: hiru kiroldegi, 2 pabilioi (bat arraunketakoa eta bestea belakoa), piraguen biltegi 1, bidegorrien 10 km (bizikletentzat), 8 kirol parke eta 3 ikastetxe kiroldegiekin. Horrez gain, klub pribatu batzuk daude, instalazio oso osatuekin

Fadurako kiroldegia

Algorta auzoan kokatuta dago. Instalazioen 360.000 metro koadro eta 600 aparkaleku-plaza ditu. Konplexua 4 inguru handitan zatitzen da:

- Atletismo ingurua: atletismo pista 1, belodromo 1, belar naturaleko errugbi zelai 1, belar artifizialeko hockey zelai 1, belar artifizialeko erabilera anitzeko zelai 1, aire zabaleko 8 tenis pista, 6 tenis pista estali, aire zabaleko 7 padel pista, belar artifizialeko areto futboleko zelai 1, kirol anitzeko pista 1, footing egiteko ibilbidea.
- Frontoi ingurua: 2 frontoi luze, esku pilotako frontoi 1, trinkete 1, 4 padel pista estalita, 2 gela, bilera-gela 1, erabilera anitzeko 3 gimnasio eta aldagelak.
- Igerilekuen ingurua: igerileku olinpiko estali eta bilkorra, 25 metroko igerilekua eta aska estalia ditu. Horrez gain, udan, igerileku olinpikoari estalkia kentzen zaio, eta jolaserako igerilekua eta aska aire zabalean ere baditugu. Inguru berdeak eguzkia hartzeko, kirol anitzeko pista estalia, fitness eta muskulazio gela, osasun zerbitzua, erabilera anitzeko 2 gela, ekitaldien eta erakusketen aretoa, ikasketa gelak eta inguru soziala, haur parkea, aldagelak, kafetegi-jatetxea eta txikigunea (haur aisiarako zentroa).
- Futbol zelaiak. Belar artifizialeko 3 futbol zelai eta belar naturaleko 1.

Gobelako kiroldegia

Romo auzoan kokatuta dago. Hauek ditu: belar artifizialeko futbol zelai 1, kirol anitzetarako pista 1, erabilera anitzeko 5 gela zabal, fitness muskulazio gela 1, 2 tenis pista aire zabalean, 2 padel pista aire zabalean, 3 igerileku estali, ikasketa gelak, inguru soziala eta kafetegia-jatetxea.

Andra Mariko kiroldegia

Getxoko Andra Mari auzoan kokatuta dago. Hauek ditu: espazio bat herri kirolak egiteko (euskal kirol tradizionala), frontoi labur 1 kirol anitzeko jokaleku bat hartzeko gai dena, ikasketa ingurua, aldagelak eta 96 plazako aparkalekua.

Arraunketa pabilioia

Getxoko Kirol Portuan kokatutako ekipamendu honek 1.000 metro koadro baino gehiago ditu. Biltegia du traineruetarako, gimnasioa, entrenamendurako zuloa eta aldagelak.

Bela pabilioia

Getxoko Kirol Portuan dago eta gutxi gorabehera 800 metro koadro ditu. Biltegia du ekipamenduetarako, 3 gela eta aldagelak.

Piraguak gordetzeko espazioa, dutxekin.

8 kirol parke udalerriko auzoetan

Kirol anitzetarako jokalekuak (saskibaloia, areto futbola, etab.), ping-pongeko mahaiak eta jolasak eskaintzen dituzte.

Hiru kiroldegi ikastetxeetan pabilioi estaliarekin.

- R. C. Jolaseta: igerilekuak, hockey zelaiak, padel estalia, tenis estalia/aire zabalean, kirol anitzetarako pistak, etab.
- R. C. de Golf La Galea: golf zelaia eta igerilekuak.
- Club Hípico La Galea: hipikako entrenamenduak eta txapelketak egiteko instalazioak.
- R. C. Marítimo: bela eskola, inguru soziala eta padel ekipamenduak.

DESKRIBATU KIROL INSTALAZIOAK ZABALTZEKO PLANAK 2013-14 URTEKO PLAN GIDARITIK.

Hauek dira legegintzaldi honetan garatzeko ezarri diren planak:

- Padel pista estaliak konpontzea.
- Kanpoko tenis pistak estaltzea. Proiektu horren bidez, gainera, 8 padel pista eta 6 tenis pista estali sortuko dira.
- Bidegorriak zabaltzea (bizikletentzako bideak).
- Eta herri kiroleterako pabilioi bat eraikitzea (euskal kirol tradizionala).

4. Kirol gertaerak

ZEIN KIROL GERTAERA (NAZIOKOAK, NAZIOARTEKOAK, TOKIKOAK) GARATU DIRA HIRIAN AZKEN 3 URTEETAN?

8. eranskina.

Getxok kirol gertaeretan tradizio handia du. Ondoren, 2010, 2011, 2012. urteetan garatu diren gertaerarik *Kirol-gertaeren txostena 2012* esanguratsuenak bildu ditugu. 2013an berriro ere egingo dira

Nazioartean

- Nazioarteko Txirrindularitza Zirkuitua
- Emakumezkoen Boleibolaren Nazioarteko Txapelketa
 - Extreme Man triatloia
 - Getxo Cup Futbola
 - Nazioarteko Tenis Txapelketa
- Nazioarteko Surf Txapelketa Olatu Erraldoiak
 - Bela estropadak
 - Pala profesionalaren txapelketa
- Esku pilota profesionalaren txapelketa
 - Mendi Astea

Nazioan

- Arraunetako Getxoko Bandera
 - Getxoko Milia
- Espainiako Parapente Txapelketa

Eskualdean

- Euskadiko herri kirolen txapelketa
 - Open Padel Getxo
 - Open Padel Gipuzkoarra
- Euskadiko Arku-tiroko Txapelketa

Tokian

- Kantxa Kirol Moda herri-lasterketa
- Eneko Caballero areto futbolaren torneo
 - Batelekuen estropada
 - Beteranoen estropada
- Ereaga –Arrigunaga igeriketa-zeharkaldia
- Ereaga-Portu Zaharra igeriketa-zeharkaldia
 - Romoko herri-krosa
 - Romoko futbol-torneoa
 - Futboleko Getxo Hiria torneo
- Street Runners herri-lasterketa
 - San Martingo krosa
 - Andra Mariko krosa
 - Itxartuko krosa
- Memorial Itziar Lopez de Uralde herri-lasterketa
 - Itxartu martxa arautua

**NOLA HARTU DU PARTE HIRIAK GERTAERA
HORIEN ANTOLAKETAN, FINANTZAKETAN
ETA GERTAERA HORIETARAKO
AZPIEGITURAK LORTZEN?**

Gertaera guztietan antolaketan modu zuzenean lankidetzan aritzen da. Azpiegiturak lagatzen ditu, bidezko baimenak onartzen ditu, gidalerroak eta proben garapena diseinatu eta garatzen ditu, diru-laguntzaren bidez gertaera guztiak finantzatzen ditu eta kasuan kasuko informazioa zabaltzen du.

Getxo Kirolakek 2012an klubek eta elkarteek antolatutako 46 gertaera diruz lagundu ditu, eta horietara 184.900€ bideratu ditu.

2012ko kirol gertaera aipagarrietan parte hartu zuten pertsonak

Jarduera	Partaidetza
BTT Getxo martxa (mountain bike)	200
Atletismo probak	4.000
Txirrindularitza lasterketak	300
Padel txapelketak	600
Igeriketa txapelketak	700
Nazioarteko Boleibol Torneoa	200
Hondartzako futbolaren torneoa	1.500
Punta Galea Surf Big Challenger	16
Karateko maisuen ikastaroa	250
Euskararen Eguna	500
Getxoko Bela Txapelketa	300
Arraunketa txapelketak	270
Romoko Gabonetako Futbol torneoa	100
Gimnasia erritmikoaren eta dantzaren erakustaldiak	290
Martxa arautuak	1.600
Adrebol futbol torneoa	1.300
Esku-pilotaren lehiaketak	500
Bizkerre emakumezkoen futbol txapelketa	100
Mendi-irteerak	2.000
Getxo Fútbol Cup	600
Guztira	15.326

**ZEIN KIROL GERTAERA (NAZIOKOAK,
NAZIOARTEKOAK, TOKIKOAK) EGINGO DIRA EDO
PLANIFIKATUTA DAUDE DATOZEN 2 URTEETARAKO
HIRIAN?**

Aipatutako guztiei nazioarteko skate txapelketa gehitu behar diegu (Getxon egingo da Bowl-A-Rama nazioarteko zirkuituko probetako bat), eta kalean kirola egiteko eskaintza zabala. Horren bidez, herriko merkataritza sarea dinamizatu nahi da. Horretarako, auzoen erdialdea multikirolerako espazio bihurtuko dugu, eta doako ikastaroak emango ditugu: yoga, tai ji, spinning eta aerobic maratoiak, xakea, tenisa, errugbia, saskibaloia, patinajea, boleibola, badmintona, dantza, etab.

**ZEIN NEURRITAN HARTUKO DU PARTE
HIRIAK GERTAERA HORIEN
ANTOLAKETAN, FINANTZAKETAN ETA
AZPIEGITURA HORNIKUNTZAN?**

Modu zuzenean parte hartzen du gertaerak antolatzen, besteak beste, hurrengoak eginez: azpiegiturak laga, baimenak eman, jarraibideak diseinatu eta garatu, eta horiek finantzatu eta diruz lagundu. Gainera, merkataritza dinamizatzeko proiektuan modu aktiboan parte hartzen du, kirolari eta osasuna sustatzeari lotutako jarduerak garatzen.

5. Lankidetzaren, kirolaren zientziekin lotutako erakundeak

ZEIN MOTATAKO LANKIDETZA EGITEN DU HIRIAK NAZIOAN EDO NAZIOARTEAN KIROLAREKIN LOTUTAKO ELKARTE ETA ERAKUNDEEKIN?

Hainbat erakunde eta elkarterekin lankidetzan aritzen gara:

- EHUko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatearekin. Ikasleen kirol-kudeaketako praktikak errazten ditugu, Unibertsitateko zuzendutako hainbat lanetan lankidetzan aritzen gara (desgaitasun fisikoa eta kirol egokitua, adibidez).
 - Bizkaiko, EAEko eta estatuko kirol federazioekin. Topaketak eta ikastaroak egiteko espazioak eta bitartekoak ematen ditugu. Ildo horretatik, azpimarratzekoa da hurrengo hauekin dugun lotura estua: Bizkaiko eta EAEko Igeriketa Federazioa, Bizkaiko Kirol Egokitua Federazioa, Bizkaiko Txirrindularitza Federazioa eta EAEko Boleibol Federazioa.
 - Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzarekin. Ikastaroak, topaketak, etab. egiteko ekipamenduak lagatzen ditugu.

- Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Sailarekin. Aldundiaren programetarako espazioak lagatzen ditugu, eta modu aktiboan lan egiten dugu "Osasunerantz kirolaren bidez" kanpainan.
- Jarduera fisikoaren esparruko trebakuntza-zentroekin lankidetzan aritzen gara (TAFAD), eta espazioak eta baliabideak ematen ditugu Getxo Kirolaren prestakuntza praktikoa garatu dezaten. Horrez gain, kirol arloko langileak jartzen ditugu ikasleei praktikaldian laguntzeko.
- EAEko Osasun Zerbitzu Publikoekin lankidetzaren estua daukagu, lehen mailako arretako zentroen bidez. Azpimarratzekoa da emakume haurdunentzat edo duela gutxi erditu direnentzat eta haurtxoentzat eskaintzen dugun igeriketa programa doakoa; programa hori osasun zentroetan gomendatzen dute medikuntzako profesionalak, Getxo Kirolarekin koordinatuta.

ZER MOTATAKO LANKIDETZA EGITEN DU HIRIAK TOKIKO, NAZIOKO EDO EUROPAKO MAILAN IKERKETA GARATZEN DUTEN UNIBERTSITATE, INSTITUTU ETA ERAKUNDEEKIN?

Ikerketaren arloan, lankidetzan ari gara Innobasquerekin (Berrikuntzaren Euskal Agentzia) jarduera fisikoari eta osasunari lotutako zenbait programatan. Azpimarratzekoa da "Gosasun" programa, elikadura, jarduera fisikoa eta jarrera positiboa bizi-kalitatearen motor moduan sustatzeko.

Era berean, "AKTIBATE" programa nabarmenduko dugu. Horren bidez erakutsi nahi dugu kirolaren bidez gaitasun emozionalak eskuratzeak gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonen erremintak eman ahal dizkiela haien bizitza modu autonomoan zuzentzeko.

Modu berean azpimarratuko dugu Cedemos Berrikuntza Zentroarekin dugun lankidetzaren (mugikortasun jasangarria espezializatuta dago) bizikletaren erabilera bultzatzeko. Getxoko Udalak gizarte izaerako enpresa horri pabilioi bat laga dio arlo horretan ikerketa bultzatzeko.

Horrez gain, Faturako Hobekuntza Teknikorako Zentroarekin lankidetzan aritzen gara (Eusko Jaurlaritzaren egoitza), eta espazioak lagatzen dizkiogu ikerketa lanetarako toki, estatu, Europa eta mundu mailan.

6. Profila eta balizko jarduerak Kirolaren Europako Hiri izanda

ZURE USTEZ, ZEIN DIRA ZURE HIRIAK 2014. URTEAN “KIROLAREN EUROPAKO HIRI” IZENDATZEKO DITUEN MERITUAK?

Pertsonen ongizatearen alde lan egiten dugu eta kirolaren eta jarduera fisikoaren bitartez ohitura osasuntsuak irakasten ahalegintzen gara.

Kirola eta jarduera fisikoa ohiko espazioetatik (kiroldegietatik) deszentralizatzeko lan egiten dugu. Jarduera fisikoa programatzen dugu hiri-inguruetan eta, modu horretan, herritarrei eguneroko errutinan jarduera fisikoa sartzeko aukera ematen diegu.

Eskaintza osoa izan dadin ahalegintzen gara. Ildo horretatik, oinarrizko zeharkako alderdiak gehitzeaz gain, hala nola generoa, interes berezia daukagu eskaintzaren aniztasunak eta kopuruak bermatu dezan adin guztietako pertsonak barruan hartzea eta integratzea.

Proiektu aitzindariak egiten ditugu. Horien bidez, herritar helduen eta eskolako adinean dauden gazteen artean ohitura osasuntsuak sustatu nahi ditugu.

Aipatutako hiru esparruetako kirol eskaintzaz gain – eskolakoa, federatua eta afizionatua –, hiria lokarriak estutzen ari da Inno-basquerekin (Berrikuntzaren Euskal Agentzia), ikastetxeekin eta osasun publikoaren euskal sistemarekin gaixotasunak prebenitzeko, programetan sakontzeko jarduera fisikoaren bidez:

- Gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen topaketa tokiko kiroldegi batean (Kronikoen Sarea).
 - Elikadura osasuntsuaren programak (tailerrak, sukaldaritza osasuntsuari buruzko hitzaldiak eta menu ildoak kirolarientzat eta menu begetarianoa eta ekologikoa hiriko kiroldegi garrantzitsueneko jatetxean, inguruko nekazariak ekoiztutako barazki ekologikoak banatu eta saltzeko puntua).
- Doako igeriketa programak emakume haurdunentzat eta haurtoentzat Getxo Kirolakek antolatuta, osasun publikoaren sistemaren lankidetzarekin.
- Espazio publikoen dinamizazioa kirolaren bidez (kirol klubak eta udalerriko denden eta ostalaritza zentroyen lankidetzarekin).
 - Hitzaldiak ikasleekin eta irakasleekin kirola nerabearoan bertan behera uztea saihesteko.
 - Lankidetzaren Eusko Jaurlaritzako hobekuntza tekniko-kirolekoaren zentroarekin, goi-mailako kirolariak gure instalazioak erabili ahal izateko (2012an bost kontinenteetako 22 herrialdeetako kirolariak 9.000 gaugarotze inguru egin zituzten gurean).

Atal honetan, kirol kudeaketa publikoari buruz dugun ikuspegia gehitu dugu: kalitatezko kirol kudeaketako ereduak defendatzen dugu, ekonomikoki jasagarria dena. Funtsezkoa da herritarrek kirol praktikarako duten eskubidea bultzatzea eta bermatzea, baina hori modu arduratsuan egin behar da. Horregatik, Getxo ekonomia-aren ikuspegitik udalerririk saneatua da, guztiok ezagutzen ditugun zailtasunak gorabehera. Ildo horretatik, hori da hautagaitzatik gehien interesatzen zaigun alderdi bat, Europaren esparruan eginera onak ezagutzen jarraitzea, politikak eta proiektuak banatzen dituzten hirien sarea osatzea administrazio guztiek gure kudeaketa hobetzen jarraitu ahal izateko.

Getxon, udalerririk ezaugarriak eta kirol praktikaren tradizio luzea kontuan hartuta, kirol lehiaketa eta gertaera ugari egoten dira urtean zehar. Ekipamenduez eta inguruaz gain, ildo horretan esperientzia handia dugu, eta administrazio moduan, inplikazio hori estrategikoa dela uste dugu hiria kirolaren bidez dinamizatzea lortzeko.

Getxo elkarten eta kirol klubak ehun trinko, ugari eta aktiboak duen udalerririk da. Aitorpen honi esker, haiekin dugun harremana gehiago estutzea gustatuko litzaiguke, haien lan eskuzabal eta kalitatezkoa eskertu nahiko genieke, ACESek eta Getxo Kirolak defendatzen dituzten balioak sustatzen baitituzte.

Kirolak hiria eraikitzen lagundu digu, auzoak eratzen lagundu digu, eta herritarrek Getxo Kirolak markarekin identifikatuta sentitzen lagundu digu.

Eta, amaitzeko, hau ere garrantzitsua den arren, gure ustez, meritua Getxoko herritarrena da –haien adina gorabehera, desberdintasun politikoak alde batera utzita eta administrazio publikoek sustatutako kanpaina eta jarduerak gorabehera–, guztiz kontzientziazatuta baitaude jarduera fisikoak bizitzaren etapa bakoitzean osasuna, dibertsioa, balioak, integrazioa, erkidego-sentimendua eta gure udalerriko kide sentitzea dakarrela.

ZEIN EKIMEN ETA JARDUERA EGIN DITZAKE HIRIAK ACES-EN LANARI LAGUNTZEKO?

Barrura begira, 2014an Kirolaren Europako Hiri izendatzeak bultzada handia emango liguke estrategikotzat jotzen ditugun bi adin-tarteri zuzendutako proiektuak garatzeko:

- Adinekoak: gerontoparkeak dinamizatzeko proiektua eta doako jarduerak urte osoan, osasun zerbitzuarekin, udaleko gizarte-zerbitzuekin eta adinekoen elkarteekin lankidetzan.
- Gazteria: nerabezaroan kirol praktika bertan behera ez uzteko lan egitea, hurrengo hauekin sarean lan eginda: Udaleko Gazteria Arloa, ikastetxeak, gurasoen elkarteak eta klubak. Getxoko gazteek ere parte hartuko lukete.

Herritarren osasunari dagokionez, aukera honen bidez osasun arloko kirol errezeta ezarri nahi dugu. Proiektu hori tokiko osasun zuzendaritzarekin lantzen hasi gara, osasun zentroetan gure kirol eskaintzaren errezeta egin dadin jarduera fisikoren bat praktikatzeko ohitura hartuta osasunak hobera egingo lukeen kasuetan.

ACESen lanari laguntzeko, eta Getxo Kirolaren zein Eusko Jaurlaritzako Hobekuntza Tekniko-Kirolekoaren Zentroko (kirol arloko ikastaroak, hitzaldiak eta prestakuntza hartzen ditu eta maila olinpikoko euskal kirolariak biltzen dituen Basque Team Fundazioaren egoitza ere bada) baliabideak aprobetxatuz, hauek har ditzakegu:

- Kirol kudeaketari buruzko kongresua toki esparruan.
- ACESek beharrezkotzat jotzen dituen topaketak.
- Europako hiriekin sarean lankidetzan aritzea, kirol kudeaketako eginera onei buruzko Europako programetan modu aktiboan parte hartzea eta ACESekin lankidetzan aritzea elkartearentzat interesgarriak diren ekimen eta jarduera guztietan.

Eranski nak

1. Getxoko informazio turistikoa.
2. Kirol praktikari buruzko inkesta Getxoko herritarrei.
3. 2010, 2011 eta 2012ko jarduera memoriak.
4. Kirol ikastaroen katalogoak.
5. Eskolak irolaren jarduerak (Multikirolak).
6. Emakumeen eta gizonen egoera diagnostikoa eta jarduera ildoak Getxoko kirol esparruan.
7. Kirol instalazio publikoen gida.
8. 2012ko kirol gertaeren txostena.

Getxo Kirolak

Makaleta etorbidea z/g,
48992 Getxo. Bizkaia, Euskal
Herria getxokirolak.getxo.net